

Plazara, festara





ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Maiatzak 30, eguena, 18:30ean,
Aita Agirreko areto nagusian.



EXPRESS ESKAINTZAK!

ROWENTA PLANTXA DW8206D1

- 2.800 W POTENTZIA
- Karearen kontrako sistema
- Lurrun-kolpea 200 g/min
- Microsteam 400HDLaser zola
- Zehaztasun Handiko Punta
- Ur tanten aurkako sistema

79,99 €



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



ile apaindegia

- Ile mozketak.
- Ile orrazketak.
- Kolorea: kolorea, dekolorazioa, balayage eta babylights.
- Tratamenduak:
 - Keratina Acquacoco.
 - Transforming well-ageing: ilea elikatu eta konpontzen du.
 - Detox Scalp: Detoxifikatu eta sakon garbitzen du.
 - Purifying scalp: Purifikatzailea eta esfoliantea.
- Ezkongaiantzako ilerako tratamenduak eta orrazkerak, eta aholkularitza pertsonifikatua.
- Ilea moldekatzea eta permanentea egitea.

- Estetika zerbitzuak.
- Aurpegirako tratamenduak: tratamendu hidratatzailea, antioxidatzailea, lasaigarria, sentikortasuna handitzeko, azal zikina garbitzeko, errefirmatzailea, argitasuna emateko, mesoktala eta begi inguruatarakoa.
- Gorputzerako tratamenduak: zelulitisaren kontrakoa, hanketako astuntasunaren kontrakoa, erreduzitzailea, azala tenkatzeko, Detoxa, larruazalako ildoen edo ildasken kontrakoa, bularretako tratamendua, mesoterapia birtuala, energetikoa eta LPG.
- Nutrizioa. ■ Radiofrequentzia. ■ Presoterapia.
- Fotogaztetzea. ■ Diodo laser bidezko depilazioa.
- Tatuajeak eta orbanak kentzea.
- Solariuma.

LURA

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Turismoa bai, baina nola?



**"Hemen,
Euskal Herrian ere,
eredu turistikoaren kalteak
igartzen dira jada"**

Uda giroa hasi da: egun luzeagoak, eguraldi hobea, aire libreko planak, festa giroa... eta horrekin batera, oporretan egingo dugunean pentsatzen hasita gaude batzuk jada. Zure kasuan, Euskal Herrian edo hemendik kanpo dagoen zein txoko deskubritu nahi duzu aurten, eta zer turismo mota sustatuko duzu?

Azken urte erdian Kanarietan bizitzen egon naiz arrazoi akademikoengatik eta turismoaren gaiarekin lotura zuzena duen proiektua garatzen egon naiz hango lankideekin. Horregatik gaiaren inguruan inoiz baino gehiago hausnartzeko eta ikasteko aukera izan dut. Egia da artxipelago hau beti izan dela ezaguna eguraldi ona egiten duelako eta paisaia bolkanikoak daudelako, baina ezaugarri hauetatik harago, askotarikoak dira irla hauek eskaintzen dituzten aukerak, eta aldi berean, aurkitu ditzakegun arazoak.

Duela hilabete (zehazki apirilaren 20an), azken urteetan egin den manifestazio handiena antolatu zuten *Kanariak muga bat dute* lelopean. Izan ere, *turismotik bizi dira* esaldia askotan errepikatu izan den arren, modelo turistiko honek batzuei bakarrik egin die mesede, baina aldiz, baliabide naturalei kalte egin eta populazioaren gehiengoak jasaten duen prekarietatea areagotu ditu. Eta zehazki hau da ulertu ezin dudana: nola den posible "paradisu" bezala izendatzen diren irla hauek estatuko pobrezia-tasa altuenetarikoa izatea.

Egoera kritikoa da, eta argi dago neurriak hartzen ez badira, okerrera egin dezakeela. Honen harira, gure lurraldeaz, Euskal Herriaz, ari bagara, antzekotasun asko aurkitu ditzakegula iruditzen zait eta hemen ere eredu turistiko desegokiaren kalteak igartzen direlako jada.

Beraz, egia da ezin garela 100% etikoak izan eta dena ez dagoela gure esku, baina errealitateaz ohartu gaitzke, eta bidaiatzean ere, erabakiak era kontziente baten hartzen ahalegindu. Ala, zer deritzozu?

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Sañoa inguruko parke eolikoaren aurkako helegite bateratua jarri dute Azpeitiko, Errezilgo eta Zestoako udalek

Duela urte eta erdi inguru, Elgoibartik ez hain urrun, Sañoa mendiaren inguruan, parke eoliko bat eraikitzekeo egitasmoa aurkeztu zuen Statkraft enpresak (enpresa hidroelektrikoa), eta aste honetan bukatzen zen proiektu horren kontrako helegiteak aurkezteko epea. Azpeitiko, Errezilgo eta Zestoako udalerritako lurrei eragiten die proiektuak eta dagoeneko helegite bateratua aurkeztu dute: proiektuaren aurkako 26 argudio aurkeztu dituzte. Baimenen tramitazioa gelditzeko edo aurretiazko baimen administratiboa ukatzeko eskatuko dute. Eusko Jaurlaritzan aurkeztu dute helegitea, hau ari baita tramitatzen aurretiazko baimen administratiboa eta ingurumen eraginaren baimena.

Hiru udalek adierazi dute indarrean den energia eolikoaren lurralde plan sektorialaren arabera, udalen hirigintza planek aukera ematen duten tokian eraiki behar direla halako azpiegiturak, eta, hortaz, parke eolikoaren proiektua ez dute bideragarria ikusten. Azterketa gehiago egin beharko lirakeela, argitzeko parke eolikoak zer eragin izan dezakeen ingurumenean, biodibertsitatean eta faunan. Udalek uste dute parkeak berak hartuko lukeen eremua ez dagoela argi kartografiatuta baimenak eskatzeko aurkeztutako agiritetan. Beste zenbait hutsune tekniko ere atzeman dituzte udalek, eta 26 puntutan jaso dituzte alegazioak.

Hiru udalek energia berriztagarriak ezinbestekoak direla azpimarratu dute, trantsizio ekosoziala egin ahal izateko, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diote prozesu hori gidatzeko.

Hausnarketa sakon eta partehartzaile bat beharrezkoa dela garbi dago eta logikak agintzen duen moduan, administrazio publiko guztiek beren ardurak hartu behar dituzte ingurumenari eta lurralde antolaketari buruzko auzietan. Ea nola jarraitzen duen gai honek...

Z.A.

Eskutitzei buruzko araudia

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

- 1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.*
- 2. 1.200 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak (espazioak barne).*
- 3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizienarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.*
- 4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.*
- 5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...*
- 6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutizik argitaratuko.*



LAGUNAK
calcheneria textil bogor

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:



PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Kaleak ixteko piboteak ez dira jolasteko:

"Maalan autoak ez pasatzeko pibote bat dago, baina garajeetara sartzeko zabaldu egin daiteke. Pibotea jaitsi egiten da, eta autoa pasatu ondoren, igo. Ume bat baino gehiago ikusi izan dut goraka doanean bertara igotzen, eta sarri, gurasoak aurrean direla egiten dute hori. Arriskutsua iruditzen zait, eta gurasoen partetik, arduragabekeria. Azkenaldian geldirik dago pibotea, ez dakit hondatuta dagoen edo, baina gurasoek argi eduki behar dute pibote hori ez dela jostailua".



Txalo bat Elgoibarko Udalari, Zientzia Azoka antolatzeagatik:

"Ume eta gazteak zientziara erakartzeko balio izan zuen zapatuko azokak. Gainera oso polita iruditzen zaigu ikasleak eurak izatea esperimientuen berri ematen dutenak. Hala ere, hobetzekoak badaudela uste dugu. Espazioa txiki geratu dela iruditu zitzaigun, eta postu batzuetan zer egiten zuten ikustea ezinezkoa zela, jende gehiegi zegoelako. Horrez gain, tailerretan parte hartzeko izena emateko sistema ez da egokia. Ordubete-pasa egon ginen ilaran, eta eskertuko genuke hurrengo edizioetarako hori nolabait hobetzea".



Txalo bat eman nahiko nieke Mendaroko Udalari eta Arno Guraso Elkarteari Espainiako Erreginaren Kopako finala ikusteko udaletxean jarri zuten pantailagatik:

"Eskertzekoa da emakumezkoen kirolari emandako oihartzuna eta zaleei partida elkarrekin ikusteko emandako aukera. Pena izan zen emaitza, baina hala ere, giro polita sortu zen udaletxeko atarian".



Astlehenean dituzte hastekoak Artekaleko igogailua jartzeko lanak



Artekalen dauden eskailera mekanikoak kendu eta igogailu publiko bat jartzeko lanak maiatzaren 27an hasiko dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udalak, eta sei hilabeteko epean lanak amaitzea aurreikusit dute. Matxuratutako eskailera konpondu baino hobeto dela igogailu bat eraikitzea erabaki du Udalak, eta Arkhiru Arkitektoak enpresa elgoibartarrak diseinatu eta idatzitako proiektua gauzatu dute. Igogailua egiteko hormigoia eta beirazko pieza handiak erabiliko dituztela aurreratu dute, estua eta iluna den eremua ahalik eta argitsuena izan dadin, eta elementu berdeekin osatuko dute igogailuaren aurrealdean sortuko duten Artekale plaza. Proiektuak 247.901,63 euroko aurrekontua izango du (BEZ barne).

Udaberriko elikagai bilketa egingo dute gaur eta bihar Elgoibarren

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du maiatzaren 24an eta 25ean, eta Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak bat egin dute deialdiarekin. Kanpaina honetan Eroski, BM eta Mercadonak hartuko dute parte, eta elikagaiak nahiz bonuak emateko aukera egongo da.

Fabrikazio aurreratuaren sektorean garapen profesionala bultzatzeko akordioa adostu dute Danobatgroupek eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak



Danobatgroup industria taldeak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak fabrikazio aurreratuaren sektorean garapen profesionala bultzatzen jarraitzeko lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren bidez, Danobatgroup ingeniari fakultateko bazkide laguntzaile bihurtu dela nabarmendu dute bi aldeek, historikoki izan duten "harreman sendoa" are gehiago indartuta. Iker Usabiagak, Danobatgroupeko Gestio Sozialeko zuzendariak, eta Carlos Garciak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusiak, akordioaren nondik norakoak jakinarazi zituzten fakultateak Arrasaten duen campusean. "Akordio hau Mondragon Unibertsitatearekin zein Goi Eskola Politeknikoarekin duela urte askotatik dugun harreman bikainaren esparruan egiten dugun beste urrats bat baino ez da", nabarmendu zuen Iker Usabiagak, hitzarmena sinatzeko unean.

2010. urtetik, Danobatgruppen eta unibertsitatearen arteko lotura horri esker, Mondragon Unibertsitateko 400 ikasle inguruk makina-erremintaren eta, oro har, industriaren mundua ezagutzeko aukera izan dute, hainbat mekanismo dualen bidez, bai eta gradu zein master amaierako lanen bidez ere, industria taldeko kooperatiba guztietan, hala nola: Soralucen, Danobaten, Goimeken edo Idekon. Adierazi zuten, bi aldeek sinatutako hitzarmen berriak elkarrekiko konpromisoa berretsi besterik ez du egiten.

'Bizi-bizixa' bonuen azken kanpainak 190.000 eurotik gora mugitu ditu

Tokiko ekonomia dinamizatze eta udalerriko saltokiei laguntzeko Elgoibar Bizi Bizixa bonu kanpainaren beste edizio bat jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak, eta arduradunek emandako datuen arabera, kanpainak iraun bitartean egindako erosketak 192.926.17 eurokoak izan ziren. 46 saltokik hartu zuten parte, eta bakoitzak 30 euroko 86 bono eskuratu zituen. Udalak herritarrek egindako gastuaren %25 finantzatu du: 29.670 euro. Honela banatu da dirua:

- Ile-apaindegiak eta estetika zentroak: 7.722.50 € bonuetan, 44.850.82 € egindako erosketetan.
- Arropa eta oinetako dendak: 7.041.25 € bonuetan, 37.862.97 € erosketetan.
- Optikak eta parafarmaziak: 2.576.25 € bonuetan, 37.132.17 € erosketetan.



- Kirolak (dendak eta gimnasioak): 2.580.00 € bonuetan, 13.862.02€ erosketetan.
- Lurrindegiak eta belar-dendak: 2.580.00 € bonuetan, 12.211.76 € erosketetan.
- Altzariak eta dekorazioa: 1.471.25 € bonuetan, 9.650.20 € erosketetan.
- Bestelakoak: 5.135.00 € bonuetan, 37.356.23 € erosketetan.

Udalak kanpainaren balorazio positiboa egin du, eta udazkenean beste bonu kanpaina bat egitea aurreikusten dutela aurreratu du.

Establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak establezimenduetako errotulu nagusia eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntzak emango ditu. Dirulaguntzaren zenbatekoa kostu osoaren %50koa izango da, gehienez 300 eurorainokoa. Bi kontzeptuetarako (errotuluak eta irudi korporatiboa) dirulaguntzak eskatuz gero, eskaera bakoitzeko urteko gehieneko

zenbatekoa 500 eurokoa izango da. Dirulaguntza hori jasotzeko, ezinbestekoa da testuak euskaraz behar bezala idatzita egotea, eta egiaztapena Euskara Zerbitzuak egingo du. Errotuluak datu pertsonalak bakarrik baditu, ez da dirulaguntzarik emango. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 30ean amaituko da. Informazio gehiagorako 943 744 366 telefonora deitu behar da.

Domeka goizak aparteko itxura hartu zuen Mendaron, Gazta Egunean



Gazta Eguneko azokaren aitzakian beste domeka askotan baino jende gehiago ibili zen joan zen domekan Mendaron. Eguraldi txarra iragarrita zegoela-eta, frontoian ospatu zuten Gazta Eguna, Herriko Enparantzan beharrean. Eskualdeko bost gaztandegitako gaztak eta Mendaroko bi baserritako sagardoa dastatu ahal izan zituzten gerturatu zirenek, bai eta herriko hiru artisauen apaingarri eta osagarriak erosi ere. Argazkiak: barren.eus

Tximeletak ezagutzeko irteera antolatu dute Elgoibarren ekainaren 2rako

Gure *Natura Ezagutzen* programaren barruan tximeletak ezagutzeko irteera antolatu dute Morkaikok, Baso Biziak eta Atxutxiamaiak, Elgoibarko Udalaren babesarekin. Ekainaren 2an izango da, eta Arantzazu ingurura joango dira. 10:00etan irtengo da autobusa Txankakuako zubitik, eta itzulera 17:00etarako egingo dute. Gidari lanak Zerynthia elkarteko Iker Novoa Fariñasek egingo ditu, euskaraz. Mendirako arropa eta oinetako aproposa eramatea gomendatu dute



antolatzaileek, eta jan-edana etxetik eraman beharko da, mendian bazkalduko dutelako. Izena emateko: labur.eus/GNE24

Sanbartolomeetako Umeen eta nerabeen eguneko kamiseten irudiaren lehiaketa antolatu dute

Sanbartolomeetako Umeen eta Nerabeen Egunerako kamisetak aterako ditu Elgoibarko Udalak lehen aldiz, eta lehiaketa bidez aukeratuko dituzte kamisetetako irudiak. Lehiaketa hori Atxutxiamaiak kudeatuko du, eta Egur Arte tailerreko kideen laguntza izango du irudi irabazleak aukeratzeko. Ume eta nerabeek hartu dezakete parte lehiaketan eta ekainaren 7a izango da lanak entregatzeko azken eguna. Irudiak marra trazo teknikarekin egin behar dira, betegarririk gabe, eta euskarazko hitzak sar daitezke. A4 neurrian edo JPG formatuan entregatu daitezke lanak Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirre Kulturgunea 3, 3. Ezk) edo aisia@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita.

Hamar irudi onenek hogeieuroko erosketa bonua jasoko dute Txankakuaren dendetan trukatzeko. Irudi irabazlea ekainaren 17tik 21era



bitartean aukeratuko dute Udal Ludotekan, Haurren Eguneko kamisetaren irudiaren kasuan, eta Udal Gaztelekuan, Nerabeen Eguneko irudiaren kasuan.

Irudi irabazleak 2024ko ekainaren 28an argitaratuko dituzte Elgoibarko Udalaren (elgoibar.eus) eta Elgoibarko Izarraren (elgoibarkoizarra.eus) webguneetan. Udalak jakinarazi du irudi irabazleak aldaketak izan ditzakeela serigrafia prozesuak hala eskatzen badu, eta irudiaren jabetza erakundearen esku geratuko dela.

Mendaron, Deba ibaiaren eskuinaldean dauden altzifreak bota eta hemen bertoko espezieak sartuko dituzte

Deba ibaiaren eskuineko aldean eta trenbidearen parean dauden altzifreak mozteko eskaera egin zion Mendaroko Udalak Uraren Euskal Agentziari martxoan, eta apirilean jaso zuen Udalak lan horiek egiteko baimena. Hala, Deba ibaiak eta Kilimon errekek bat egiten

duten zubiaren ondoan eta ibaian gora dauden altzifreak moztuko dituzte. Zuhaitz horiek, gaur egun, pantaila-efektua sortzen dute eta horregatik haiek bota eta hemen bertoko landaredia sartuko du Udalak. Neguan egingo dute hori.

Makina-erremintaren sektorea %22,6 hazi zen iaz, baina eskaeretan beherakada aurreikusi dute aurten



Makina-erremintaren sektoreak bizi duen egoeraren eta iazko datuen berri eman zuten Xabier Ortueta AFMko zuzendari nagusiak eta Jose Perez Berdud presidentek, urteko batzar orokorraren baitan. 500 bazkidetik gora batu ziren Kursaalean, Donostian. Emandako datuen arabera, makina-erremintaren sektoreak %22,6ko hazkundea izan zuen 2023an, eta inoizko gehien fakturatu zuen sektoreak: 2.157 milioi euro. Irabaziek gora egin arren, inflazioak irabazi tartek murriztu zituela zehaztu zuten. Sektoreka, deformazioarenak izan du hazkunde handiena (%54,4), hein handi batean, automobilgintzaren sektoreko inbertsioak suspertzeari eta AEBetatik eta Mexikotik datorren eskari handiari esker. Sektore esportatzailea da makina-erremintarena,

salmenten %76 Hego Euskal Herritik eta Espainiatik kanpo egiten baitituzte. Iazko datuei erreparatuta, %21,8 hazi ziren salmentak. Hala, bi urtez jarraian gora egin dute eta 1.611,9 milioi eurora iritsi dira. Klusterraren barruan dauden 800dik gora enpresek, bereziki bi sektoreentzat makinak egiten dituzte: autogintzarentzat eta aeronautikarentzat. Iaz, estreinakoz, Amerikako Estatu Batuetan saldu zuten makina gehien, Italia, Alemania, Txina eta Mexikora eginiko salmentei gain hartuz.

2024rako aurreikuspenen berri ere eman zuten, eta esan zuten, makina-erremintak ekoizten dituzten Europako beste herrialdeetan eskaeretan izan zituzten jaitsierak ikusita, espero zuten hemen ere jaitsiera bat izatea, baina jaitsiera hori ia urtebete atzeratzea lortu dute.

Olaia Irigoien idazleak bere liburuak jarriko ditu ikusgai Kultur Kafean



Olaia Irigoien elgoibartarrak umeentzako hainbat liburu idatzi ditu Akelarre bildumaren barruan, eta liburu horiek jarriko ditu ikusgai asteburu honetan, Kultur Kafean. *Inesa Gaxen* izan zen idatzi zuen lehenengoa, eta haren atzetik etorri dira *Misión Don Quijote y Sancho Panza* eta *Elisabeth Martí*. Historiako pertsonaien biografiak jaso ditu, umeentzako formatoan. 17:00etatik aurrera egongo da gaur Kultur Kafean, eta bihar, 10:00etatik eguerdira arte.

Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetarako dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten herritarrei. Eibarren, Usurbilen, Tolosan, Bilbon, Donostian, Iruñean eta Baionan izango dira ikastaroak ekainaren 6tik uztailaren 10era bitartean. Ikastaroari buruzko informazio osoa ueu.eus atarian kontsultatu daiteke, eta Eibarko informazio zehatza jasotzeko 943 821 426 telefonoan eskuratu daiteke. Elgoibarko Udalak matrikula osoa ordainduko die Elgoibarren errolatuta dauden langabetuei, ikasleei, pentsiodunei eta jubilatuei, eta lanean dihardutenei, berriz, matrikularen erdia ordainduko die. Dirulaguntzari buruzko informazio gehiago lortu nahi dutenek Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo beharko dute (943 744 366) .




LEKUEDER, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BILGUNE

  Ainhoa Andonegi

Zientzia Azokaren hirugarren edizioak hartu zuen Lekueder zapatuan, eta jendez gainezka egon zen zientziagunea. Eskoletan egindako lanak erakutsi zituzten eskola umeek, eta hainbat tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten. 578 plaza zeuden parte hartzeko, eta antolatzaileek esan dutenez, plaza guztiak bete ziren. Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkie elgoibartar guztiei larunbatean Lekueder parkean ospatutako III. Zientzia Azokara gerturatu eta parte hartzeagatik.







DENA PREST TRINITATE JAIAK OSPATZEKO

Trinitate jaiak ospatuko dituzte asteburuan Elgoibarren eta Mendaron, eta dena prest daukate antolatzaileek. Urtero bezala, ez da danbor hotsik eta azokarik faltako Elgoibarren, eta berrikuntzen artean aipatu behar dira Inazio Bereziartua musika eskolak gaur gauerako antolatu duen kontzertua eta bihar eguerdian egingo duten harri-zulatze txapelketa. Mendaron, bestalde, ohikoa izango da egitaraua. Agendako orrietan duzue asteburuko egitarau zehatza.

Ohi baino lehenago hasiko dira Trinitate jaiak Elgoibarren aurtan, gaur bertan hasiko baitira ekitaldiak. Inazio Bereziartua musika eskolak 40 urte bete ditu, eta ospakizun ekitzen barruan kontzertu berezia antolatu du gaur gauerako. Musika Gaua egingo dute Maalan, 22:00etatik aurrera. Musika Eskolako rock taldeak hasiko du emanaldia, eta lau pieza joko dituzte. Ondoren, beste zortzi pieza interpretatuko dituzte Big Band formatoan. Betisua txarangari sekzio erritmikoa gehituko diote eta bi kantutan bakarlariek jarriko dute ahotsa.

Jai-giroa berotzeko kontzertua izango da beraz gaurkoa, baina bihar hasiko dira jaiak bete-betean. Elgoibarko baserrietako azoka berezia egingo da Lekuederren eta Aita Agirren. Batetik, herrian bertan ekoiztutako produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da. Basartesorietakoak (Basueta) barazkiekin etorriko dira azokara, Madarizurieta (Mausitxa) eta Lizundiatxabolakoak gazta eta ortuariarekin; Yvette Miguezek (Azkarate - Yom) ogia ekarriko du; ezitia Zortziko Eztiak eta Lizagasarrek sagarrarekin egindako produktuak.

Baserriko produktuez gain, hemengo baserrietan hazitako animaliak ere egongo dira ikusgai. 80 bat buru ekarriko dituzte guztira baserri hauetakoek: Aiastitxiki baserria (Pirenaika), Berdezkunde baserria (Pirenaika), Ziarda Txiki Goikoa baserria (Limusina), Agerre baserria (Aubrac), Zulueta Bekoa Baserria (Pirenaika), Orube baserria (Limusina). Horrez gain astoak (Arkaitz), Zaldi Arabiarra eta Española (Juaristi baserria), Euskal Herriko Mendiko Zaldiak (Artesoro baserria), behorrak (Belaustegi baserria), poniak (Irunagasoro baserria), haragitarako Moxalak (Armaitxa-Erdikua baserria). Baita ere, Latxa Sasi ardiak (Irunagasoro Baserria), Ahari Latxa Mutur beltzak (Mardari-Zurieta baserria), Ahuntz Azpi Gorriak (Irunagasoro), Ahuntz mestizoak (Urruzuno-Haundi), Latxa Mutur Beltzak (Arkaitz) eta Manex ardiak (Urruzuno-Haundi baserria).

Ferian ohiko bilakatu den Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa aurten ere antolatu du Zazpiki elkarteak, eta bederatziki baserrik hartuko dute parte: Olazarraga Azkue, Armazio, Amuskategi, Antsolabazterra, Gelasoro, Urrategi, Zulueta Bekoa eta Marigorta. Lekuederren bertan Lumagorri eta Basatxerri kalitatezko oilasko eta txerrikiak dastatzeko aukera egongo da, platera 2 euro ordainduta.

Goiz parteari amaiera emateko, elkarrekin bazkalduko dute baserritarrek, Lekuederren.

BERRIKUNTZA: HARRI ZULATZE TXAPELKETA

Herri kirolek ere lekua izaten dute Trinitate jaietan, eta aurten Euskal Herriko harri zulatze txapelketa jokatu dute Elgoibarren. Denbora jakin batean harri batzuk zulatzean datza kirol hau, eta zulo gehien egiten duen taldea izaten da irabazlea. Kirolari bat altzairuzko barra batekin zuloa egiten aritzen den bitartean, beste batekin ura botatzen dio zulora eta hirugarrenak erreleboa ematen dio gero. Meategietan lan egiten zuten eran oinarrituta dago kirola. Izan ere, harrietan lehergailuak sartu ahal izateko horrela aritzen ziren meategietan, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen lehen herenean. Harri zulatzailearena meategietan zegoen lanbiderik preziatuenetariko bat izaten



**Herri Kirolen atalean,
Euskal Herriko harri zulatze txapelketa
jokatuko dute bihar,
Kalegoen plazan.**

zen, eta duen zailtasunagatik gainerakoek baino gehiago irabazten zuten egiteko horretan aritzen zirenek.

Elgoibarren sei taldek hartuko dute parte: Kabiezes, Alda Aialde, Burdin Gazteak, Errekatxo, Piratak eta Gallarta. Emakumezkoen Harriketarrak taldeak erakustaldia egingo du. Kalegoen plazan izango da, 13:00etatik aurrera.

DANBOR HOTSAK

Arratsaldea Mauxitxa txarangak girotuko du, eta gauean, danbor hotsak izango dira nagusi, Atabal taldeak antolatzen duen nagusien danborradan. 200 lagun baino gehiago irtengo dira danborra edo kupela jotzen, sukaldari, mikelate, gastadore, abanderatu edo artillero postuetan, Udala Musika Bandak lagunduta.

Domeka eguerdian umeek hartuko diete helduei erreleboa. Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleak arituko dira danbor eta kupelei eraginez bandaren doinuak lagun, eta urtero bezala, karroza ikusgarri batek zeharkatuko ditu kaleak.

Umeen danborradak kaleak zeharkatzen dituen bitartean, artisau azoka egongo da Lekuederren. Bitxiak, burnia, ehunak, larrulanak, txotxongiloak, xaboiak, zeramika eta bestelako eskulanak ikusteko eta erosteko aukera egongo da, Euskal Herri osotik etorriko diren artisauen postuetan. Horien artean, Elgoibarko hainbat postu ere egongo dira: bitxietan Magi Bitxiak eta Xarlem Creations, eta ehungintzan, Zugehini.



Arratsaldean, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak irtengo dira kalera ume eta familien gozamenerako, eta horrekin bukatuko dira jaiak.

MENDARO



Mendaron, Trinitate ermitaren inguruan ospatzen dituzte trinitateak, Mendarozabal auzoko jaiak. Bizi Poza txarangakoek hasiko dituzte gaur ospakizunak, eta bihar zuhaitza jasoko dute ermita ondoan jai-batzordekoek, kanpai eta txapligo hotsez lagunduta.

Ekintza nagusiak, baina, igande eta astelehenerako gordeko dituzte. Txistularien kalejirarekin hasiko dituzte domekako ospakizunak, eta meza emango dute Trinitaten. Mezatan, elizako abesbatzakoek

eta Ameikutz musika eskolakoek parte hartuko dute. Meza osterako herri-kirol saioa lotu dute: Maddi Gesalaga arituko da harria jasotzen eta Ugaitz Mugertza eta Eneko Otaño aizkoran. Hori guztia Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilarien doinuek jantziko dute amaieran. Trinitate Txiki egunean ere meza izango dute Trinitaten, eta ondoren, Ikastolako umeak bertotan arituko dira. Lizarralde eta Esnaola trikitilariak emango diete errematea aurtengo jaiak.



■ Hiru urterako gobernu plana aurkeztu du Mendaroko Udalak, 75 egitasmotan

✍️ Ainara Argoitia

Datozen hiru urtetarako Gobernu plana aurkeztu zuen joan zen egunean Mendaroko Udalak udaletxeko udalbatza aretoan egindako agerraldi publikoan. 75 neurri "zehatz, egingarri eta neurgarri" jaso dituzte planean eta esku-orri bihurtuta banatu dute. Hala ere, Enetz Ezenarro alkateak bileran nabarmendu zuen plana dinamikoa izango dela, aurreikusten dutelako agintaldian zehar egitasmo berriak sortuko direla, herritarrek egindako ekarpenetatik eta bestela. Alkateak nabarmendu zuen Mendaro "herri euskaldunagoa, feministagoa, justuagoa, garbiagoa, erakargarriagoa eta dinamikoagoa" egiteko neurriak jaso dituztela planean eta "maiztasun zehatz batez" betetako neurrien berri emango dutela, bai eta egiteko dutenaren berri ere. Gobernu planean jasotako puntu batzuk aletu ditugu gaur hemen.

ETXEBIZITZA ESKAINTZA

Gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta eta Mendaron etxe zahar huts asko daudela ikusita, zaharkitutako etxebizitzak berri eta merkatuan jartzeko asmoa du Udalak. Horretarako formula ezberdinak aztertzen ari direla zehaztu du Enetz Ezenarro alkateak: batetik esan du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin harremanetan jarri direla Mendaroko Hiri Antolamendurako Planean jasotako baldintzetan alokairu soziala edota bestelako aukerak sustatzeko zer aukera dauden aztertzeko eta Jaurlaritzak azterketa horren emaitzak jakinarazi zain daudela. Hala ere, zehaztu du Eusko Jaurlaritzaren beharrik gabe ere, badaudela beste aukera batzuk, esaterako Udalak herriko etxebizitza zaharrak erosi, eraitsi eta orube horietan etxebizitza tasatuak eraikitzea. "Aukera guztiak" dituzte mahai gainean. Datozen hiru urterako etxebizitza-plana diseinatu asmo dute eta horretarako, IKEI enpresaren bitartez, galdeketa bat zabalduko dute datozen egunetan, herritarren beharrak eta nahiak ezagutzeko, eta Mendaron etxebizitza eskaera erreala zenbatekoa den jakitzeko. "Epe laburrerako etxebizitza planean etxebizitzaren eskuragarritasunarekin duten gauza guztiak jasoko ditugu: alokairurako dirulaguntzak, etxebizitza hutsen gaineko politika fiskalari dagozkionak... Azken batean ikuspegi orokor bat izan nahi dugu egin daitezkeen eta hartu daitezkeen neurri guztien inguruan".

Horrez gain, Mendaroko etxebizitza eraikinetan igogailuak jartzeko erraztasunak emango dituztela nabarmendu dute: aholkularitza, dirulaguntzak, degradatutako ingurueterako planak...

KIROLGUNEA ETA ANBULATORIOA

Frontoiaren atzeko hiru solairuak kirol jardueretarako erabilgarri jarri nahi ditu Udalak, gimnasioa zabaldu eta gaur egun Azpilgoetako Kultur Etxean ariketa fisikoari lotuta egiten diren jarduera batzuk hara eramateko. Sonia Garcia alkate zen garaitik dator kontua. Horretarako, medikuaren eta erizainaren kontsultategiak lekuz aldatu behar dira, baina, eta Jaurilaritzaren Osasun Sailarekin hasita dituzte horretarako harremanak, Osakidetzarekin duten 30 urterako hitzarmena urrian betetzen delako. Mendaroko kasuan, Udalarik dagokio kontsultategiarentzako lokal berria topatzea eta han behar diren erreformak egitea, beti ere Osasun Sailaren oniritziarekin. Lokal bila hasi aurretik, hala ere, Mendaroko mediku eta erizainekin bildu ziren udaleko ordezkariak haiek lokal berri horri zer eskatuko lioketen jakitzeko. Osasun Sailak,



bestalde, ahal izanez gero, lokal horrek gainean etxebizitzarik ez izateko baldintza jarri zien. Alkateak esan du lokal bat begiz jota dutela eta proposamena ere egina diotela Osasun Sailari. Handik zer erantzungo zain daude orain.

U HOLDE ARRISKUA ETA UR ZIKINAK

Ur handiek Garagartzan eragiten dituzten kalteak ahal den neurrian saihesteko irtenbide bila dihardu Mendaroko Udalak azkeneko bi legegitzalditan, auzotar talde batekin batera. Udalaren eskariz, auzoko euri-uren sarearen funtzionamendua aztertu zuen Bidein enpresak eta Garagartzako bi puntu baxuenetan ekaitz-tanke bana eraikitzea proposatua dute: bata, Kaxintaneko etxearen ondoko belargunean, eta bestea, Abarketeroneko aurreko belargunean. Kanean pilatzen den ura jasotzeko tankeak dira ekaitz-tankeak, lurrazpikoak, han bildutako ura errekarara husteko motobonbekin egokituak. Milioi bat euro inguruko obra da aurreikusten dena, eta nork finantzatu da arazoa.

Udala hartu-emanetan dago Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, baina, era berean, eskualdea suspertzeko Debabarreneko Ponentzian ere aurkeztu du proiektua; bai hori, eta baita Mendaroko ur zikinak Apraizko araztegiara eramateko proiektua ere, Garagartzarako aurreikusten den ponpaketa-estazioa eraikitzeko eraikinen bat erosi beharko balitz ere. Debabarreneko saneamendu proiektu horren baitan, Mendaroko eta Elgoibarko Altzola auzoko ur hondakinak Apraizko araztegiara eramatea



aurreikusten dute, eta horretarako, kolektore bat eta bost ponpaketa-estazio eraikitzea. Horietako bat Atzolan, eta beste laurak, berriz, Mendaron: Azpilgoetan, Kurutz gain industrialdean, Plaza auzoan, eta handiena, Garagartzan. Proiektu horri alegazioak aurkeztu dizkiote, bereziki Garagartzarako proiektatutako ponpaketa-estazioaren harira, tartean Udalak, eta erantzunaren zain daude.

KULTURGUNE BAT HERRIKO ENPARANTZAN

Jubilatuen lokalak, lokal zuriak eta Lagun Betikoak tabernak okupatzen duten espazio berrantolatu nahi du Udalak, Itxasertz arraindegia erositara. Arraindegiko jabearekin adostasun batera iritsi dira eta proiektu-zirriborro batzuk ere egin ditu arkitekto batek, Udalaren enkarguz. Proposamen horiek aztertuko ditu orain Udalak, aldeei aurkeztu, haien ekarpenak jaso eta behin betiko proiektua idazteko gero. Asteon zizkien Udalak aldeei aurkeztekoak. Proposamen horren arabera, ezkerreko aldean kokatuko lukete jubilatuentzako egoitza berria, gaur lokal zuria eta arraindegia dena okupatuz, baina egun jubilatuek erabiltzen duten gunea eta taberna ere egokitu nahi dituzte, batetik, tabernan lanerako lekua irabazteko, eta bestetik, espazio horretan erabilera askotariko gunea bat sortzeko, hitzaldi eta formato txikiko kultur jardueretarako. "Denek irabazteko bidea



egitea da gure asmoa. Era berean, kulturgunea etxebizitzan azpian joango dela ikusita, oso ondo zainduko ditugu kulturgune horren erabilera eta intsonorizazio- kontuak". Kulturari dagokionez, bi hilean behin agenda soziokultural bateratua argitaratzeari ekin dio Udalak herriko eragileekin elkarlanean, eta era berean, haur eta helduentzako ikastaro eskaintza osatua eta zentralizatua eskaintzeko konpromisoa hartu du irailerako.

BASOAK ETA MENDI BIDEAK

Basoak lehengoratzeko politikak martxan jartzeko asmoa jaso du Udalak datozen hiru urterako planean, eta horren barruan, baso lurrak erosten hasi da, hemen bertako zuhaitz espezieak sartzeko. Naturtzaindikoekin lankidetzan ari dira egiteko horretan. Era berean, Udalarenak diren lurretan banda marroiak jota dauden pinuak ere botako dituzte. Zerbitzu ekosistemikoetan erreparatzeko beharra ikusten dute, norbanakoek eta gizarteak ekosistemen funtzionamendutik lortzen dituzten onuretan alegia. Hala, Mendaroko natur guneen (karsta, artadia, ura, fauna...) ezagutza eta babesa bultzatzeko, ikerketa sustatzeko, eta dibulgaziorako materiala sortzeko eta ekintzak antolatzeke konpromisoa hartu dute.

Mendi Federazioaren laguntzarekin, bestalde, Mendaroko mendietako zenbait ibilbide balizatuko ditu Udalak eta bideak garbi mantentzeko lanak bere gain hartu. Kilimon Trail mendi lasterketaren ibilbidea izango da markatzen lehenengoa, aurreko legegintzaldian hasi zutelako antolatzaileek hartu-emanak Udalarekin, baina beste pare bat ere markatu asmo dituzte, tartean Olabazatik Elkorretara arte doan errege-bidea. Geoparkeko ibilbide sarea markatzen dihardu Mendi Federazioak eta asmoa zera da: Mendaroko ibilbide batzuk sare horretara lotzea eta inguru horietan daukagun balio naturalaren eta kulturalaren berri emango duten kartelak jartzea.

BESTE BATZUK

Harrera protokologoa eta indarkeria matxistaren kontrako protokoloak idatzi eta martxan jartzea; herriko mapa morea osatzea; euskaltegia indartzea; herrigunean komun publiko bat jartzea; udal eraikinetako kontsumo energetikoa Mendaron ekoiztiko energiaz hornitzeko pausoak ematea; Mendaro Herri Hezitzailean sarean sartu eta herrian hezkuntza-

mahai bat sortzea; Herriko Enparantza berrurbanizatzea; Ospas azpiko aparkalekua eta Azpilgoetarako sarrera egokitzea; Mendaroko Hirigintza Arautzeko Plan Orokorra berritzeko prozesua hastea, eta herriko kultur eragileak eta Udala koordinatzeko mahaia sortzea dira datozen hiru urtetarako planean jaso dituzten beste puntuetako batzuk.

Kaleko margo lehiaketa egingo dute bihar Elgoibarren



Egur arte tailerrak kaleko margo lehiaketa antolatu du biharko Elgoibarren, Udalaren laguntzarekin. Adinez nagusi diren guztiek parte hartu ahal izango dute, baina lan bakarra aurkeztu ahal du bakoitzak, Elgoibarko herria gai hartuta. Kalegoen plazan eta inguru gertuan margotu beharko dituzte beren lanak, mugatua izango baitute espazioa, baina artelana egiteko formatua eta teknika libreak izango dira.

Parte-hartzaileek 09:00etatik 10:00etara eraman beharko dituzte beren euskarriak San Bartolome parrokiako aterpera, zigilua jartzera. Antolatzaileek ez dute onartuko aurrez egindako

zirriborro, marrazki edota seinaledun euskarririk. Artista bakoitzak 13:00ak eta 14:00ak bitartean aurkeztu beharko du bere lana, elizako arkupeetan, sinadurarik gabe, eta arte munduarekin lotura daukan epaimahai batek erabakia hartu bitartean, mokadua emango diete artistei. 14:30ean banatuko dituzte sariak. Lau sari izango dira: sari nagusia, 800 eurokoa; bigarren saria 500 eurokoa, eta hirugarrena 300 eurokoa. Sari bako lehen herritarrak 150 euro jasoko ditu.

'Mugak errebeldia gisa' hausnarketa-saioa astelehenean, Lilan

Emakumeentzako hausnarketa saioa antolatu dute astelehenerako, maiatzaren 27rako, Elgoibarko Emakumeen Etxean, Lilan. *Mugak errebeldia gisa* jarri diote izenburutzat eta Loredi Salegik gidatuko du. Saio irekia izango da, eta ez da beraz izenik eman behar. 18:00etan hasiko da.

Gipuzkoako gazteen auresku txapelketako finalean lehiatu da Uxue Cabrera elgoibartarra

Gipuzkoako gazteen auresku txapelketako D mailako finala jokatu zuten Legazpin zapatuan. 2009 eta 2010. urteetan jaiotako hamalau dantzari lehiatu ziren, urtarrilaren 13an Legazpin bertan abiatu zuten ligaxkan puntuaziorik onenak lortutakoak. Horien artean zen Uxue Cabrera, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ordezkari bakarra. Finalera



sailkatutako dantzariak *Betronio handia*, *Aurkez aurke* eta *Xamurra* kontrapasa dantzatu zituzten eta epaimahaiak Jurgi Errandonea andoaindarra izendatu zuen txapelkun. Ihintza Erauskin lezoarra sailkatu zen bigarren eta Onditz Esnaola lizartzarra hirugarren. Bihar, berriz, Unax Ansolaren txanda izango da. Erreterian jokatu dira A (7-10 urte) eta B sailtako (11-13 urte) dantzarien finalak, eta han izango da Ansola.

Zirko tailerra antolatu du Arno Guraso Elkarteak ekainaren 5erako Mendaron

Zirko tailerra antolatu du Mendaroko Arno guraso elkarteak herriko eskola-umeentzat eta haien etxekoentzat ekainaren 5erako (eguztana). Frontoian egingo dute, 16:30etik 18:30era.



Satxa Soriazuk 'The Megadeth Project' lana aurkeztuko du bihar Mendaron, kontzertuan



Satxa Soriazu musikari hernaniarrak *The Megadeth Project* diskoa (Aztarna, 2023). argitaratu zuen iaz, 1990eko *Rust in Peace* laneko abestiak jazz-hizkuntzara ekarrita, eta zapatuan, hilaren 25ean, kontzertua emango du Mendaron, San Agustin kulturgunean 20:30ean. Uztargi tabernakoek eta Galle-tiak gozotegikoek antolatu dute kontzertua, Gararock taldekoen laguntzarekin. Sarrerak Uztargi tabernan salduko dituzte 8 euroan, bai eta egunean bertan San Agustin kulturguneko atean ere, aurrez amaituko ez balira.

"Piano-jotzaile klasiko batek Beethovenen sonatak grabatu nahi dituen bezala egin dut, edo jazz musikari batek Duke Ellingtonen komposizioetan oinarritutako disko bat

argitaratzen duen bezala, nahiz eta aurretik interprete askok besterik gabe grabatu dituzten. Neure nortasunetik egin dut, naizena islatuz, musikari gisa izan dudana bizi-ibilbide osoa: nerabezaroan entzuten nuen rocka eta heavya, rock sinfonikoa, piano klasikoko ikasketak eta, jakina, jazz", zioen Soriazuk diskoa argitaratu berriren *Tomajazz* aldizkariari eman zion elkarriketan. Eta diskoaren esentzia hori bera ekarriko du orain zuzenekora. Daniel Lizarraga (bateria), Kike Arza (Kontrabaxua) eta Alejandro Mingot (gitarra) izango ditu lagun eszenatikian Soriazuk.


Goazen Karaokea ekarriko du Udalak Mendarora ekainaren 8an



Mendaroko Udalak jakinarazi du Goazen Karaokea lotu dutela ekainaren 8rako (zapatua). Goazen telesaileko zenbait aktore telesaileko abesti ezagunenak abestu eta dantzatzen arituko dira ikuskizunean, baina oraingo honetan publikoaren laguntza ere eskatuko dute. Dantzan eta kantuan egiteko aukera izango dute, beraz, ikusleek. 5 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzendutako ikuskizuna da, ordubete ingurukoa. Ikastolako jolastokian egingo dute karaokea.

Aizkoltxoko indusketa lanek eman dutenaz arituko dira gaur Mendaron

Arkeologiari buruzko hitzaldi-zikloa antolatu dute EHUK, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean, eta horren barruan, *Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon* izenburuko hitzaldia emango du gaur, barikua, Dani Ruiz ikertzaileak. EHUKo Historiaurreko Ikerketa Talde Finkatuko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kide da Ruiz. Goi Paleolitoaren amaierako industria litikoaz ari da tesia egiten eta azken zortzi urteetan aritu da Aizkoltxon indusketa arkeologikoak egiten. Euskaraz emango du hitzaldia, 19:00etan, udaletxeko udalbatza aretoan.



Udalak gezurtatu egin ditu Herriko Antzokiko grebaren harira ELAk esandakoak

J oan zen astean Herriko Antzokiko grebaren harira ELA sindikatuak prentsa-ohar bidez zabaldukoak gezurtatu ditu Elgoibarko Udalak, eta langileen eskubideen alde lan egiteko eskatu dio sindikatuari, "zintzo, egia, lankidetzan eta alde guztiekiko errespetuz".

Apirilaren 11n, Herriko Antzokia kudeatzen duen Aisilan XXI enpresarentzat lanean ari diren sei langileek greba mugagabea hasi zuten eta ELAtik salatu zuten geroztik hainbat bilera eskaera egin dizkiotela Udalarari eta enpresari, baina ez dutela erantzunik jaso. Horren harira, egindako bileren zerrenda argitaratu du Elgoibarko Udalak. Hasteko esan du abenduan eta martxoan Aisilan XXI enpresakoekin bildu zirela, eta martxoaren 6an, berriz, ELA sindikatuko ordezkariekin, ELAK berak eskatuta. Langileekin, berriz, behin baino gehiagotan bildu direla esan dute Udaletik eta harreman etengabean daudela.

"Elgoibarko Udalak beti entzun ditu Herriko Antzokiko langileen eskaerak", zabaldu dute prentsa ohar bidez, eta bi datu eman dituzte hori arrazoitzeko: 2023an 60.000 euroko kudeaketa-partida bideratu zutela, eta 2024an, berriz, kopuru hori bikoiztu egin dutela, langileen baldintzak hobetzeko planteatutako eskaerei erantzuteko: 120.165 euro. "Udalak elkarriketarekin eta inplikaturako alderdi guztien mesederako konponbideak bilatzearekin duen konpromisoa berretsi du, eta lanean jarraituko du Herriko Antzokian bidezko eta errespetuzko lan-giroa bermatzeko. Gainera, herritarrei kalitatezko kultur zerbitzua eskaintzea da helburua, eta, beraz, ezinbestekoa da Herriko Antzokiaren funtzionamendu egokia", nabarmendu dute.

Langileek greba maiatzaren 31a arte luzatzea erabakia dute.

'Memoriaren ganbaratik' dokumentalaren proiektzioa eta ondorengo solasaldia, Bilgunean



Memoriaren ganbaratik dokumentala proiektatuko dute eguaztenean, maiatzaren 29an, Elgoibarko Bilgunean, 19:00etan. Taupada antzerki taldekoek eta Elgoibar1936 taldekoek egingo dute atariko aurkezpena, eta ondoren, 36ko gerraz eta errepresioaz solastuko dira.

Maiatzaren 30ean egingo du Elgoibarko Izarrak Batzar Orokorra

Bi helburu nagusi izango ditu bilerak: 2023an egindakoaren errepaso egitea eta 2024an egiten diharduena azaltzea. Elkarteak egiten duenaren berri bazkideei emateko izaten da Batzar Orokorra. Aita Agirre kulturgunean izango da batzarra, 18:30ean hasita.

Maiatzaren 15etik 25era egingo da datorren urtean Euskaraldia ariketa

Urtebete falta da Euskaraldiaren laugarren edizioa hasteko, eta euskalgintzaren mugimenduan diharduten ehunka lagun hasiak dira lanean, herriz herri eta auzoz auzo, baita gurean ere. 2025eko maiatzaren 15etik 25era milaka belarriprest eta ahoz bizi bilduko gara Euskal Herrian, gure herrietan euskara gehiago entzun eta hitz egin dadin.

Jose Antonio Nuñezek irabazi du Idotorbeko tiraldia, eta Garikoitz Rodriguez jarri da lider

Idotorbeko bolatokian jokatu zuten zapatuan Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joko txapelketako azkenaurreko jardunaldia, bederatzigarrena. 61 bolari aritu ziren lehian, eta San Andres taldeko Jose Antonio Nuñez *Txikik* irabazi zuen, sei txirlo botata. Bost txirlo bota zituen bigarren egin zuen Garikoitz Rodriguezek (Asola Berri). Horri esker, sailkapen nagusiko lehen postura egin du gora Rodriguezek (38 puntu), asteetan lidergoari eutsi dion Santos Muñozzi aurrea hartuz. Sailkapeneko hirugarren postuan dago orain Muñoz, 34 punturekin. Angel Ibarluzea elgoibartarrak ere aurrea hartu baitio Muñozzi. San Migel taldeko bolaria bigarren dago orain, 35 punturekin. Boni Plaza da laugarrena (32) eta Unai Loiola bosgarrena (28).

Gauzak horrela, norgehiagoka bizia espero dute antolatzaileek txapelketako azken jardunaldirako. Bihar, hilak 25, jokatu dute



azkenengoa, Bergarako San Joxepe bolatokian (17:00). Han erabakiko da txapela noren burura doan.

Buruz buruko pilota txapelketako finala ikusteko pantaila, Mendaron



Zapatuan Realak eta Bartzelonak jokatu zuten Espainiako Erregina Kopako finalean egin zuten bezala, buruz buruko pilota txapelketa elkarrekin ikusteko aukera emango die Mendaroko Udalak herritarrei. Hori dela-eta, eta orduan egin bezala, ekainaren 2an ere pantaila jarriko dute udaletxe atarian, Jokin Altunak eta Unai Lasok jokatu duten finala ikusteko. 17:00etan hasiko da partida.

Bizikletak konpontzeko oinarrizko mekanika ikastaroa emango dute, doan

Bizikletak konpontzeko oinarrizko mekanika ikastaroa antolatu dute elkarlanean Morkaiko Mendizale Elkarteak eta Elgoibarko Lagun taldeak. Ekainaren 5erako antolatu dute ikastaroa, Mintxetan, 18:00etatik aurrera. Ordu eta erdiko saioa izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta bizikleta egoera onean mantentzeko aholkuak, konponketak eta doikuntzak nola egin azaldu eta erakurtsiko dute, teoria eta praktika uztartuko dituen saioan.

Besteak beste, honakoak landuko dituzte: bizikletak nola garbitu eta olioztatu, balaztak eta eserlekua nola egokitu, gurpilak aldatu eta zulatuak konpontzeko teknikak edo transmisioak nola konpondu. Norberak bere bizikleta eramateko eskatu dute. Doakoa den arren, izena eman behar da parte hartzeko. Maiatzaren 31 da izena emateko azken eguna eta online egin behar da, honako loturan datuak emanda: <https://forms.gle/YMN3KKtn9QJeVZak9>.

Belen Azpeitiak badu lekua Mamo Wolderen eta Juan Mugertzaren ondoan

Emakumezkoen atletismoan aitzindaria izan zen Belen Azpeitia Mendioroz (Donostia, 1952-2005), eta sei alditan irabazi zuen Mugertza krosean. Bera izan da Elgoibarko krosean garaipen gehien eskuratu duen atleta: 1968an estreinakoz, eta bost urtean jarraian gero (1972, 1973, 1974, 1975 eta 1976). Badira nahikoa meritua, Juan Mugertzak eta Mamo Woldek, krosetan bi ikurrek, Mintxetan duten irudiaren ondoan berea ere izateko. Halaxe izan behar dela uste dute Elgoibarko Udalak eta Mintxeta Atletismo Taldeak, eta aitortza egingo diote. Gaur egingo dute haren aldeko omenaldia, 18:30ean, Mintxetan. Bere alaba Izaskun Urbietak hartuko du parte ekitaldian. Antolatzaileek parte hartzera animatu dituzte herritarrak.



Angel Quintana bigarren postuan sailkatu da La Romanica proban

CATT Morkaiko taldeko mendi lasterkariak han eta hemen lehiatu dira azken egunetan. Inguruko mendietan batzuk, eta urrunagokoetan beste zenbait. Angel Quintana elgoibartarrak La Romanica proban hartu zuen parte, eta bigarren postua eskuratu zuen 57 kilometroko La medium proban. Katalunia erdialdean jokatzen duten mendi lasterketa da La Romanica. Navas herrian hasi eta bukatzen da, eta ibilbideak badu berezitasun bat: inguru horretako ermita erromanikoetatik igarotzen dela, GR-176 ibilbidea jarraituz.

Ainhoa Lendinez jarri da lider Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Kopan

EHko Kilometro Bertikalen Kopako lehen lasterketa jokatu zuten zapatuan: Txindokiko KM Bertikala. Elgoibartar ugarik hartu zuten parte, CATT Morkaiko ordezkatzatuz gehienak, baina Ainhoa Lendinezek eginiko igoera nabarmendu behar da denen artean. Zazpigarren postuan sailkatu zen emakumezkoetan, baina bera izan zen azkarrena Koparako izena emandakoen artean, eta sailkapeneko lehen postuan dago, 100 punturekin. Zegama-Aizkorri kilometro bertikala izango da Kopako bigarren proba, gaur. Berian KM probarekin amaituko da Kopa, irailaren 22an (🏃 emezetaklik).



Bertso-pilota txapelketako partida bat Mendaron jokatuko dute maiatzaren 31n

Emakumezkoen pilota sustatzen duen Ados enpresak sortutako Udaberri Torneoko bertso-pilota txapelketako partida bat Mendaron jokatuko dute gaur zortzi, maiatzaren 31n, 18:00etatik aurrera. Kirola, kultura eta berdintasuna uztartzen ditu bertsoa eta pilota batzen dituen ikuskizun honek. Hiruna pilotarik osatutako lau talde ari dira txapelketan parte hartzen, esku huska eta lau t'erdian, eta pilotarien gidari eta animatzaile lanak bertsolari banak betetzen dute. Mendaron, Kukuprakak eta Bitxiloreak taldeek jokatuko dute. Kukupraketan, Ruiz de Infante,



Etxekolonea eta Mujika pilotariak arituko dira pilotan eta Sebastian Lizaso bertsolaria izango dute botillero. Bitxiloreetan, berriz, Zabala, Barrokak eta Etxebeste izango dira pilotariak eta botilero lanak Aitor Sarriegik egingo ditu. Final handia Azpeitian jokatuko dute ekainaren 8an, 18:00etan hasita.

Antxitxikari mendaroarrak eta elgoibartarrak enpresen arteko lasterketako podiumean

Inoiz baino talde gehiagok hartu dute parte domekan Donostian jokatu zuten Enpresen Lasterketaren 15. edizioan: 857 laukotek. Elgoibarko eta Mendaroko enpresa ugaritako langileek parte hartu zuten, bai eta Euskal Herriko beste hainbat enpresatan lan egiten duten mendaroarrek eta elgoibartarrek ere. Horietako batzuk, gainera, erabakigarriak izan ziren euren enpresek lortu zituzten emaitza onetan. Mari Carmen Seijas mendaroarrak, esaterako, garaipena eskuratu zuen DAD Kutxabank taldearekin, emakumezkoetan. Kutxabaneko laukoteak 0:37:41ko denboran osatu zuen 8,3 kilometroko ibilbidea. Orona taldea sailkatu zen bigarren postuan (0:38:03) eta Eroski hirugarrengan



(0:39:20). Podiumaren hirugarren koskara igo zen Eroskiko laukotean bi elgoibartarrek egin zuten korrika: Pilar eta Agurtzane Arriola ahizpek. Gizezkoetan Orkli enpresak aurkeztutako taldea izan zen azkarrena (0:27:43), Smarktec sailkatu zen bigarren (0:27:51) eta Bidelan hirugarren (0:28:10). Bidelaneko laukotean egin zuen korrika Igor Torres elgoibartarrak.

Zabalik dago C.D. Elgoibarren paella janerako izena emateko epea

Denboraldia jai giroan agurtzeko ohitura du C.D. Elgoibarrek, eta aurten ere paella jan baten bueltan batuko dira, ekainaren 8an. Izena emateko azken eguna ekainaren 1 dela jakinarazi dute. Sigmako probalekuan egingo

dute bazkaria eta txartelak Jai-Alai eta Kaia tabernetan eskuratu daitezke. Guraso, bazkide eta zaleentzako prezioa 25 eurokoa izango da. Gazteek eta umeek 6 euro ordaindu beharko dituzte.

Taldea indartzeko kide gehiago behar ditu emakumeen saskibaloit taldeak

Emakumez osatutako herriko lehen saskibaloit taldeak amaitu berri du liga txapelketa. 2022. urte amaieran hasi ziren taldea sortzeko ahaleginean eta denboraldi honetan lehiatu dira estreinakoz. Badute eztabaida talde barruan, batzuk lehiatzen hastearen aldekoak zirelako eta beste batzuek nahiago zutelako urtebetez itxarotea, taldeak eskarmentu nahikoa izan arte. Lehiatzen hastearen aldekoek irabazi zuten azkenean, motibazioarako lagungarri izango zela arrazoituta, eta ligako partida guztiak galdu dituzten arren, balorazio oso positiboa egin dute bizitakoaz.

"Emaitzak ez dira gure lehentasuna izan. Galtzen joan arren, irabazten ari ginen sententzia izan dugu zenbait partidatan. Egia da Donostiako taldeen aurkako partidak edo Zarautz eta Eskoriatzaren aurkakoak alde handiagatik galdu ditugula, baina emaitzak ez du eraginik izan talde barruko giroan. Eibarren aurka jokatu genuen derbi parekatuak ere zapore aparta laga zigun", azaldu du Selma San Miguel taldekideak, denboraldiaren balorazioa egiterakoan. Aldiz, zailtasun handiena entrenamenduetarako eta partidak jokatzeke jokalarit nahikoa ez izatea izan



dela nabarmendu du. "Hamar bat jokalarirekin hasi genuen denboraldia, baina kopuru txikia da entrenamenduetarako zein partidetarako. Taldea laga zuten batzuek, eta min hartu beste batzuek, tartean nik, eta oso larri ibili gara taldea osatzeko". Hori dela-eta, taldera batzeko deia egin diete saskibaloian jokatu nahi duten Elgoibarko zein inguruko herrietako emakumeei. Interesa dutenek taldearen entrenamenduetara agertu besterik ez dute. Martitzenetan eta eguenetan entrenatzen dira, 18:45ean, Olaizaga kiroldegian. Edo bestela taldeak Instagramen duen kontuaren bitartez jarri harremanetan beraiekin.

Maiatzaren 30ean hasiko dituzte Mendaron frontenis txapelketak

Gizonezkoen eta emakumezkoen frontenis txapelketak antolatu ditu Mendaroko Gazte Asanbladak 15 urtez gorakoentzat eta guztira, 26 bikotek eman dute izena: hemezortzi bikotek gizonezkoen txapelketarako, eta zortzik emakumezkoenerako. Maiatzaren 30ean jokatuko dituzte aurreneko partidak, eta neurketa gehienak eguen eta bariku arratsaldeetan jokatuko dituzte, Goñati frontoian, 18:00etatik aurrera. Salvuespen bakarren bat egingo dute, esaterako, maiatzaren 31n, egun horretarako, Bertso-pilota txapelketako saioa duelako lotua Mendaroko Udalak. Antolatzaileek jakinarazi dute publiko egingo dutela egutegia, dena lotua



dutenean. Finala, berriz, santanetan izango dela aurreratu dute, uztailearen 20an, Gazteen Egunekeo egitarauaren barruan. Sari banaketa ekitaldia Gaztetxean izango da.

Garaipenak pilatu eta pilatu ari dira Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulari gazteak

Emaitza onak pilatzen jarraitzen dute Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulari gazteak. Zapatuan, taldeko bost txirrindulari igo ziren podiumera Bergaran jokatu zuten lasterketan. Industrialdeetan jokatzeko dira normalean adin haueko txirrindularien lasterketak eta hala izan zen zapatuan ere. Zirkuitoari bi itzuli eman zizkioten benjaminek, lau alebinek eta zortzi infantilek, bizikletarako ezin eguraldi pretraloagoarekin. Izan ere, lasterketak hastekoak ziren unean bertan hasi zuten euria, euri erauntsia. Benjaminetan, Elgoibar Lagun Taldeko Iker Barrueta eibartarrak irabazi zuen eta Egoi Motriko mendarorak egin zuen bigarren. Alebin nesketan, Elgoibarko Lagun Taldeko beste bi txirrindulari igo ziren podiumera, bigarren eta



hirugarren egin zuten June Iraolagoitia mendarorak eta Irati Ansola elgoibartarra, eta infantiletan, Xabier Barrueta eibartarrak hirugarren egin zuen, azkeneko metroetan eraso jo eta esprinean amaitu zen lasterketan.

Kopako finalak jokatu dituzte Salento Gelati eta Alcorta eskubaloit taldeek



Kopa txapelketak jokatzeko ari dira Sanloko hainbat talde, eta horietako bik finalerako txartela eskuratu zuten, joan den asteburuan. Kadete nesken mailako Salento Gelatik zaleen aurrean jokatu zuen finalerdia, zapatuan, Olaizaga kiroldegiko kantxan. Aiala Zarautz taldea izan zuten aurkari, eta Sanlokoek 46-41 irabazi zuten. Bigarren finalerdia ere Elgoibarren jokatu zuten egun berean, Orio eta Bera Bera taldeek. Orioarrek lortu zuten finalerako sailkatzea, 25-19 irabazita. Hortaz, Salento Gelatik eta Oriok jokatu dute Oiarzun Kopako finala. Oraindik ez dago finala jokatzeko egunik izendatuta.

Alcorta Forging Group taldeak ere lortu du Kopako finalerako sailkatzea. Senior gizonezkoen Sanloko talde nagusiak bosgarren postuan amaitu zuen Euskal Liga, 31 punturekin. Bi taldek lortu

dute igoera fasea jokatzeko sailkatzea: Pulpo talde zumaiaarrak eta Urdanetak. Horrenbestez, Alcortak Kopako titulua eskuratuta agurtu nahi du denboraldia. Eta bide onetik doaz. Lau taldeko ligaxkan, jardunaldi baten faltan lortu dute, matematikoki, Kopako finalerako sailkatzea. Azken jardunaldian 25-34 hartu zuten mendean Tolosa.

Ligaxkako azken jardunaldian Saizar Usurbil taldearen bisita jasoko dute elgoibartarrek. Ez dute ezer jokoan izango, sailkapenari dagokionez, baina izango du bere garrantzia partidak. Bi taldeok jokatu baitute Kopako finala, ekainaren 1ean. Finala jokatu aurretik indarrak neurtzeko norgehiagoka izango da, nahiz ez den komeniko karta guztiak agerian lagatzerik.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia daukat.
647 554 386

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia daukat.
643 505 827

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia, titulu soziosanitarioa eta erizain titulua ditut. Orduka. Ospitaletan zaintza lanetan aritzeko ere prest nago.
643 505 662

Adinekoak zaintzen edo etxeko garbiketak egiten egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Berehala hasteko prest.
638 857 100

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
631 892 149

Neska euskalduna uztailleko goizetan umeak zaintzeko prest.
615 707 138

Sara daukat izena, eta adinekoak zaintzen nahiz umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko garbiketa lanak egiteko ere prest. Erreferentzia onak dauzkat eta etxeko langile moduan ere egingo nuke lan.
604 855 097

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat, eta erreferentzia onak.
613 763 593

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Asteburuetan lan egiteko prest nago.
641 756 213

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.
624 131 378

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
697 900 991


Eskaintza

Aho hortzetako higienista behar da. Berehalako kontratua eskaintzen da. Bidali cv. hortzclinika.06@gmail.com.

OSPAKIZUNAK

1964an jaiotakoen bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean eztabaida bat dago, telefono-konpainia bati komunitateko estalkiaren zati bat errentan emateko aukerari buruz, telefonia ekipoak instalatu ditzaten. Jabe batzuk ez daude ados, eta beste batzuk, presidentea tartean, ados eta alokairu-kontratu bat sinatzeko prest daude. Jakin nahi nuke ea desadostasun horrek ekidin dezakeen ekipamendu horiek teiltuan instalatzea.</p> <p>Legearen arabera, erabilera espezifikorik ez duten gune komunak alokairua gauzatu ahal izango da, baldin eta partaidetza-kuotaren hiru bostenak ordezkatzeko dituzten jabeen hiru bostenen gehiengoak babesten badu erabakia. Horretarako, Jabeen Batzarra antolatuta behar da, eta puntu hori gai-zerrendan sartu. Hala ere, instalazio horrek kalteak eragiten badizkio jaberentzako, hala nola, eraikinaren azken solairuan bizi diren jabeek, edo higiezinari berari gehiegizko pisuagatik edo beste edozein zailtasun teknikorengatik, bereziki kaltetutako pertsonaren botoa beharko da, edo, hala badagokio, jarduketa horrek ekar ditzakeen zailtasun teknikoak eta arazoak kontuan hartu beharko dira.</p> <p>Gomendioa: azkenean, komunitateak proposamen hori onartzen badu, akordio hori kontratu batean arautu beharko da, eta kontratu hori lehendakariak sinatu beharko du, komunitatearen ordezkari gisa.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---


Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **printzesa!** 7 urte bete dituzu eta etxekook onena opa dizugu egun hauetarako. Segi horrela, zoriontsu, gure bizitza zure irribarrearekin argitzen.



Zorionak, **Nuria!** Oso ondo pasa zure egunean. Alexen, familiakoen eta lagunen partez.



Zorionak, **Malen,** asteartean 6 urte egingo dituzulako. Segi horrelako neska jatorra izaten. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, ahizpa Naroaren partez.



Zorionak, **Iñigo!** Astelehenean 9 urte! Oso ondo pasatu! Etxekoen partez.



Zorionak, **Jone,** atzo 8 urte egin zenituelako. Ondo pasa genuen! Etxeko guztien partez muxu handi bat.



Zorionak, eta aunitz urtez **Elai,** zure lehenengo urtea bete duzulako, eta zuri ere, amama **Luzia,** domekan urteak beteko dituzulako. Biziki maite zaituztegu. Etxekoak.



Zorionak, **Sabin** eta **Teo!** Maiatzaren 21ean 15 urte, eta maiatzaren 12an, 12! Segi horrelako mutil jatorrak izaten!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko **azken eguna urriaren 30a** izango da:

- UEUK antolaturiko ikastaroak egiteko, EHUK eta HIK HASIK euskaraz antolatzen dituzten uda ikastaroak egiteko eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu izana saritzeko dirulaguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak, baita barnetegietarako ere (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 13a izango da).

Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez dizakete interesdunek HAZen.

Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki **Udalaren webguneko Herritarren Atarian.**

Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (943 744 366, euskara@elgoibar.eus).



24 BARIKUA

10:00 Bisita gidatua: Udaberriko zuhaitzak. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

17:00 Akelarre argitaletxearen postua. Olaia Irigoien elgoibartarrak bere liburuak jarriko ditu ikusgai, Kultur Kafean

18:30 Omenaldia: Mugertza krosa sei aldiz irabazi duen Belen Azpeitiari. Mintxetan.

19:00 'Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon'. Hizlaria: Dani Ruiz, EHuko ikertzailea. Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan.

25 ZAPATUA

10:00 Akelarre argitaletxearen postua. Olaia Irigoien elgoibartarrak bere liburuak jarriko ditu ikusgai, Kultur Kafean.

20:30 Satxa Soriazuren kontzertua, Mendaron, San Agustin kulturgunean. Sarrerak. 10 euroan, Uztargin, nahiz sarreran.

27 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Mugak errebeldia gisa'. Loredi Salegik gidatuta, Lilan. Elebietan izango da.

18:00 Furgobaratza. Baratzezaintza ekologikoari buruzko zalantzak argitzeko saioa. Elgoibarko Udalak antolatuta, Kimu Bat enpresako adituekin. Urruzunoko baratzetan.

28 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Mijail Bulgakov-en 'El maestro y Margarita' liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

30 EGUENA

19:00 Musika Eskolako koruen kontzertua, Herriko Antzokian.

31 BARIKUA

18:30 Ramon Masats argazkilari kataluniarraren argazki erakusketa. Ekainaren 22ra arte egongo da ikusgai.

Eta, Debabarrenean zer?

Gipuzkoa Bertsotan txapelketako saioa, Soraluzen. Ekainaren 2an, Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseko azken saioa jokatu dute Soraluzeko antzokian (17:00). Eneko Araiztegi Agirre, Eneko Beretxinaga Laskurain, Izarne Zelaia Arratibel, Iñigo Gorostarzu Etxebeste, Libe Goenaga Arrieta eta Peru Aiertza Cajaraville arituko dira bertsoan. Bertsosarrerak.eus webgunean daude salgai sarrerak



Eneko Araiztegi Agirre



Eneko Beretxinaga Laskurain



Izarne Zelaia Arratibel



Iñigo Gorostarzu Etxebeste



Libe Goenaga Arrieta



Peru Aiertza Cajaraville

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Eguzen: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MAIATZA

24 BARIKUA

25 ZAPATUA

26 DOMEKA

27 ASTELEHENA

28 MARTITZENA

29 EGUAZTENA

30 EGUENA

31 BARIKUA

■ Fernandez

Yudego

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

Barrenetxea

2024 urte guztian, gauz:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

TRINITATE JAIAK ELGOIBARREN

24 BARIKUA

22:00 Musika Gaua. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Maalan.

25 ZAPATUA

9:00 - 14:00 Kaleko margo lehiaketa. Egur Arte Tailerrak antolatuta, parrokiako arkupeetan.

10:00 Urazpiko bataioa, 15 urtetik gorakoentzat (adin txikikoak, gurasoen baimenarekin). Urbizik antolatuta, kiroldegian.

10:00 - 14:30 Herriko baserrietako produktuen salmenta.

10:00 - 17:00 Herriko baserrietako abereen erakusketa. Aita Agirren.

11:00 Lumagorri eta Basatxerri produktuen dastaketa. Zazpiki kultur elkarteak antolatuta, sagardo dastaketa eta lehiaketa.

13:00 Euskadiko Harri Zulatze txapelketa. Kalegoen plazan.

Jarraian, C.D. Elgoibarko argazki rally-aren sari banaketa, Txankakua eta Ongarri argazkilari taldearekin elkarlanean.

18:00 Mauxitxa txarangaren kalejira, Mauxi eta Kiribilekin.

23:00 Nagusien danborrada. Atabal elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

26 DOMEKA

9:00 Diana, Udal Txistulari Taldearekin.

10:00 - 14:30 Artisau azoka, Lekuederren.

11:00 Meza, San Bartolome parrokian.

12:00 Umeen danborrada. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak, Elgoibarko dultzaineroekin.

TRINITATE JAIAK MENDARON

24 BARIKUA

19:00 Bizi Poza txarangarekin kalejira.

25 ZAPATUA

17:00 Zuhaitza jasotzea, kanpaiak eta txapliguak.

26 DOMEKA

10:00 Mendaroko txistularien kalejira.

11:30 Eliz ospakizuna, abesbatza eta Ameikutzekin.

12:30 Herri Kirolak. Maddi Gesalaga harria jasotzen, eta Ugaitz Mugertza eta Eneko Otaño, aizkoran.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak.

27 ASTELEHENA

11:00 Meza, Trinitateko elizan.

12:00 Ikastolako umeen bertso saioa.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak.

Zinea

Herriko Antzokiko langileen greba dela-eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.


IPAR
SURF
SKATE
ESKOLA

Udako eskolan izena emateko epea zabalik!



SURF | TXIKISURF | SKATE | PADDEL
Markiegi kalea 2 - Deba
iparsurfskate.com | info@iparsurfskate.com | 627 32 51 35



Nagore Cancio del Pino






Gabriela Gañán Molinero

2024ko maiatzaren 19an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Beti egongo zara gure bihotzetan.



Euren oroimenez II. urteurreneko meza
izango da, domekan, maiatzaren 26an,
11:00etan, Elgoibarko
Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

**Beti gure bihotzean izango zaituztegu.
Bakea zuekin izan dezazuela.**



Maitasunez,
etxeakoak

II. URTEURRENA

**Angel Albizu
Astigarraga**

2022ko maiatzaren 24an hil zen,
82 urte zituela.






II. URTEURRENA
**Arrate Elizburu
Arriola**


2022ko maiatzaren 29an hil zen,
76 urte zituela.



Eskertzak eta urteurrenak
Barren astekarian eta barren.eus webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**
 **688 769 657**

 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**

GREEN MI OEN GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud. Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
f ax: 943 743 565
tendi@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara

943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,82€
hilan

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
20870 ELGOIBAR